

**EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien barne promozioeko sarbide-modalitateko prozedura arruntaren bidez funtzionario gisa sartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzeko dena.**

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 7an argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetarako barne-sustapenaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautzeko oinarri espezifikoak.

Seigarren oinarri orokorreko hirugarren paragrafoan zehaztutakoari jarraituz, Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta horien inguruko erabakia hartu ondoren, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko.

2023ko otsailaren 3an onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.**-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C eta D taldeetan barne-sustapenaren bidez sartzeko deialdi espezifikoetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, dagozkien eranskinetan, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraztea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideak aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 7.5 eta 10.3 oinarrietan adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

**Bigarrena.**- Erabaki hau deialdi espezifiko bakoitzaren webgunean argitaratzea, horretarako gaitutako UPV/EHUren web-orritik sar daiteke orri horretara (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ope-barne-promozioa>), deialdi espezifiko bakoitzaren web-orrian, baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

**Hirugarrena.**- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontaktzen

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)